

HILDAKOEN TRENEAN KLASEAK DAUDE




Nagore Irazustabarrena
Uranga

@irazustabarrena

Derio (Bizkaia), 1902ko apirilaren 27a. Vista Alegreko hilerriak atek zabaldu zituen eta egun Bilboko hilerri nagusia da. XIX. mendearen bukaeran, beste hainbat tokitan bezala, geroz eta biztanle gehiago hartzen zituen hirigunean ez zegoen hildakoentzako tokirik, Abando, Albia, Begoña eta Mallonako hilerriak gainezka zeuden, eta Bilbotik hamar bat kilometrora, Derio eta Zamudio arteko eremu hura aukeratu zuten hildakoak ehorzteko.

Hilerri berriak abantaila bat zuen gainera; 1895 urteaz geroztik Lezamako ferrokarrilak lotzen zituen hiria eta Derio. Lehen urteetan zaila izan zen trenbidea eraikitze inbertsioari buelta ematea. Orduan landa gunea zeharkatzen zuen trenak eta bidaiari nahiz merkantzia gutxi eramaten zituen batetik bestera. Hilerri berria inauguratuta, merkantzia berria negozioa pizteko aukera ezin hobia zen. Baina hasierako urtetan ez zioten zukurik atera. Hilkutxak merkantzia bagoietan eramaten zituzten eta 11 pezeta kobratzen zituzten kutxako. Senitarteko eta gertukoentzako txartelak ere ez ziren merkeak eta, hala, bizidun gehienek oinez egiten zuten hilerriko bidea.

1910ean Lezamako Ferrokarril Konpainiak eta Bilboko ehorztetxeek bat egin zuten, hileta agentzia berria sor-



Bilbotik Derioko hilerriera zihoan "hildakoen treneko" lehen klaseko bagoia.

tu eta zerbitzu egokiagoak eskaintzeko. "Hildakoen tren" berezia sortu zuten -herritarrek hala esango zioten-, 1950eko hamarkada bitartean martxan egongo zena. Hiru motatako bagoiak zituen. Mariano del Corral tren enpresario aitzindariaren tailerretatik ateratako bagoirik dotoreena lehen klasekoa zen. Beira esmerilatuak zituen, eta egur landu finak. Hilkutxa bakarra eramaten zuen eta gertukoentzat egongela eroso zeukan. Bigarren klaseko bagoiak bi

hildakorentzako tokia zuen eta senitartekoek ere haiekin batera joateko aukera zuten, nahiz eta aurrekoak adinako luxurik ez izan. Hirugarren klaseko bagoia gertuago zegoen ohiko merkantzia bagoietatik. Hamar kutxa sartzen ziren bertan, baina hurbilekoek ahal bezala moldatu behar zuten hilerri iristeko.

Heriotzak denak berdintzen omen gaitu, baina "hildakoen trenak" Deriora iritsi bitartean behintzat, ederki bereizten zituen. ■



PERUKO KULTURA MINISTERIOA

Klima aldaketari buruzko 3.800 urteko murala

Vichamako (Peru) aztarnategian ia hiru metroko murala aurkitu dute, giza aurpegiak, sugeak eta hazi antropomorfo bat dituen. Irudiok interpretatuta, "emankortasunaren murala" esan diote eta, Caral gune arkeologikoko zuzendari Ruth Shady arkeologoaren esanetan, "erliebe horiek klima aldaketak giza populazioan dituen eragin katastrofikoak

gogorarazten dizkigute". Duela 3.800 urte klimak izandako aldaketak eragin handia izan zuen mundu osoko zibilizazio askotan; Caralekoaren amaiera ekarri zuen lehorteak, eta bertako artistek harrian zizelkatuta utzi zuten gertatutakoa. Mural honek, zehazki, nekazaritza produkzioan izandako gainbehera du hizpide. ■